



JARDUERA KLABEAK

Gure jarduera klabe nagusia plataformaren inguruan da, aplikazioa bakarrik ekoitze behar dugu eta. Honen barruan zerbitzu ezberdinak eskainiko ditugu, korrika egitearekiko osagarriak eta bezeroei ahalik eta zerbitzu onena emateko, beharrezkoak. Enpresaren funtzionamendurako, marketing eta administrazio taldeak edukiko ditugu. Aplikazioa sortzeko eta zerbitzu hauekin betetzeko, informatiko talde handi bat edukiko dugu enpresan.

1. Zure **hobekuntza aztertze**ko aukera, hainbat irizpideekin helburu pertsonalaren arabera. Hortaz gain, korrika ari zeran bitartean, irizpide hauek ezagutzeko aukera izango duzu beti. Besteak beste, abiadura, denbora eta distantzia. Lortutako datuekin, grafikoak sortuko ditu aplikazioak berak, bilakaera aztertze. Beraz, neurri handian lana automatikoa izango da.

2. **Entrenatzaile pertsonal** bat aplikazioan bertan: zure helburuak zehaztean, hauek lortzeko ariketa eta elikagai ideiak aurkezten ditu. Adibidez, pertsona batzuen helburua erresistentzia gehiago lortzea izango da eta beste batzuen abiadura azkartzea. Horretarako, zure datu pertsonalak kontuan edukiz (pisua, sexua, adina, altuera...) plan pertsonal bat diseinatuko du. Zerbitzu hau aurrera eramateko, hainbat entrenatzaile profesional subkontratatu ditugu, eredu ezberdinen aurrean plan bat sortzeko.

3. **Ibilbideak**: korrika egiteko hainbat ibilbide eredu egongo dira, egin nahi dezunaren arabera: aldaparekin, aldaparik gabe, mendian, hirian, jende gutxi dauden lekuan... Hauek aukeratzeko inkesta bat egingo dugu bezeroen artean eta ondoren hauek ikertuko ditugu, ondoren planera gehitzeko. Hortaz gain, ibilbide propioak egiteko aukera edukiko duzu eta hauek gordetzeko, hurrengoan nahiezkero berdinak egiteko.

4. **Egoera fisikoa**: zure neurriak sartzeko aukera edukiko duzu: pisua, altuera... eta aldaketak sartzeko ere. Enpresan lan egiten duten medikuek datuak ikertu egingo dituzte, ondoren bezeroari analisi landu bat emateko. Gainera, erloju inteligente bat eramatean, honekin sinkronizatu daiteke, pultsazioen bilakaera aplikazioan mantendu.